

6. BEZEROEN HARREMANA

Bezeroekin harreman konstantea izango dugu, horretarako gure berrikuntza guztien berri emango diegu, gainera beraien beharren berri egongo gara momentu oro. Web orrian gure bezeroek partekatzen dituzten iruzkinak irakurriko ditugu, normalean bezeroak askoz zintzoagoak izaten dira interneten bidez, eta dituzten kekek kontuan hartuko ditugu, etorkizun batean keka hoiek berriro ere ez jasotzeko eta irtenbideak bilatzearen helburuarekin. Gainera gizartearen aldaketetara moldatuko gara, momentu guztietan egongo gara gure produktua berritzen.

Salmenta ondorengo harremana ere izango dugu bezeroekin, salmenta ondorengo harremana badago bezeroarekin harreman iraunkorra, egonkorra eta bi aldeentzako onuragarria izango da. Horretarako email bidez, gure bezeroentzako interesagarriak izan daitezken produktuak partekatuko ditugu, email horiek bezero bakoitzaren beharretara egongo dira egokituta. Email horiek pertsonalizatuak egin ahal izateko, lehenengo salmentareen ondoren galdetegi bat beteko dute, eta aurretik egin dituzten erosketan oinarrituko gara.

